




EGUNKARIA

JON ABRIL



Tower Bridge zubia.

→ eta Mikel Susperregi. Landuko duten hurrengo gaia bake prozesuarena izanen da. Andoni Gorostiaga, Gabriel Ezkurdia eta Txente Rekondo bake prozesuaz eta bakera-ko prozedurez solastuko dira. Koldo Gorostiagak Europako estaturik gabeko nazioen etorkizunaz hitz eginen du; Gorka Espiau Elkarri-ko kideak erakunde horrek egoera politikoaz egindako diagnostikoa aurkeztuko du, eta Daniel Conversik Kataluniako eta Euskal Herriko mugimenduak aztertuko ditu. Azken hitzaldietan gizartea eta komunikabideak izanen dituzte mintzagai. Horretarako, EHUko Patxi Azpillaga, Edorta Arana eta Josu Amezaga ariko dira, eta herri komunikabideen ahotsa eramanen dute Mikel Irizarrek eta Joxe Aranzabalek. Hitzaldiekin batera, egunero lantegiak izanen dira jardunaldien harira. Zinemagintza, soziolinguistika, komunikabideak, kultura eta nortasuna, eta bakegintza izanen dituzte mintzagai. Tartean izanen dira, bertzeak bertze, Martin Ibarbia, Santi Urrutia, Imanol Galfarsoro eta Xabier Itzaina. Jardunaldiak euskaraz eta ingelesez izango dira.

Korrikaren lekukoari agurra dantzatzen Londresen.

Westminsterko legebiltzarra, Londresen.

Eguna aurkezteko aprobetxatuko dute, eta horren beharraz eztabaidatuko dute. Hilaren 27a Euskararen Eguna izanen da, eta, horretarako, Euskaltzaindiko eta Kontseiluko ordezkariak eramanen dituzte. Euskaltzainditik nor joanen den zehaztu gabe dago; Kontseilutik, berriz, Joxe Jabier Iñigo joanen da Bai Euskarari akordioaren berri ematera. Ekainaren 28an, DisemiNazioak izenburuko mahai-ingurua izanen da. Identitate sozialak, kulturalak, politikoak eta sexualak aztertuko dituzte. Mexico Support Group, Outrage eta Tibet Foundationeko kideak ariko dira solasean.

Antzerkia izanen da nagusi ekainaren 29an. David Perezek magia saioa egingen du, eta Bederen Bat antzerki taldea ariko da ondoren. La & Ha zerura doaz antzezlanarekin. Ekainaren 30ean, musika, poesia, joko bisualak eta bertso hop-a uztartuko dituzte

Babylonia Langileak Kolektiboak eta bertze zenbait artistak. Larunbaterako, berriz, kulturen aldeko kontzertua antolatu dute. Fermin Muguruza-Dub Manifest, Atilla the Stockbroker, Fin de Siecle eta Basque Dub Foundation Dj Set taldeak ariko dira jaialdian. Kultur Asteari eta jardunaldiei akaberramateko, bazkaria antolatu dute uztailaren 2rako. ■

## Imanol Galfarsoro

«K»

IMANOL GALFARSORO IBS irakaslea da. IBS erakundearen sustatzaileetakoa da. 23an hasiko den euskarazko jardunaldia.

### ■ Nondik sortu zen L. tur Astea egiteko ideia?

Jardunaldi hauek aurreko Studies-IBS delakoaren ondorioz sortu ziren. Unibertsitateko hizkuntza laguntzarekin sortu ziren, jadanik bizpahiru taldeak zabalean ulertzen den zerbait zela.

Jardunaldi hauen berri ideia ona izango zela zerbait egitea. Ideia hori osoa handitu egin da, keen bezala. Urteetan jardunaldiak eta Aste Kulturaleko Batuan bizi diren pertsonen aukera ederra zela pentsatu zuten.

### ■ Zer izaera du IBS erakundeak?

Ofizialki, IBS 1998an sortu zen. IBSko bazkariak gaur egun erakunde global ikasketen inguruetan leku sare global baten bitartez horren bitartez lortu...



JON ABRIL

### Ekitaldi ugari Kultur Astean

Jardunaldiak antolatzen ari zirela, Euskal Etxeari Euskal Kultur Astea antolatzeko proposatu zioten. Makina bat ekitaldi antolatu dituzte ekainaren 23tik uztailaren 2ra bitarte. Egun bakoitzak gai bat izanen du ardatz. Datorren ortziralean hasiko dira, eta arte erakusketak batekin emanen diote hasiera Kultur Asteari. Zuhatz Altolagirre, Iñaki Gilarte, Juanjo Rodriguez, Amaia Allende eta Javier Nanclaresen marrazkiak, pinturak, argazkiak eta eskulturak zintzilikatuko dituzte Oxford Houseko Café Galleryn. Biharamunean, IV. Udako Jaia ospatuko dute. Haurrentzako jokoak egingen dituzte, eta bertan izanen dira ESAIT euskal selekzioaren aldeko kideak, txalapartariak, albokariak, bertsolariak eta dantzariak. Igandea, hilaren 25a, zinemari eskainiko diote. Zuhaitz baten ametsa, Mikelen heriotza, Akelarre eta zenbait film labur emanen dituzte.

Astelehenean, ENA Euskal Nortasunaren